

# NICOLAS CAREAGA

1870 inguruan jaioteko ermuar honek txikitatik erakutsi zuen pilotarekiko zaletasuna, bere adineko ume gehienek bezala. Hala ere, gehiengoak ez bezala, segituan erakutsi zuen honek pelotarako gaitasuna, aparteko abildadea.

Bere karrera profesionala 16 urterekin hasi zuen, Deustuko frontoian, bere bolea indartsuagatik deitu zuelarik atentzioa. Horrek Bilboko bi frontoietan jokatzeko ateak ireki zizkion, eta bertan ibili zen Ermuara itzuli behar izan zen arte beso eskubian min hartuta. Gerora arazo ugari emango zizkion min honek, bere jokua aldatu beharko zuelarik honegatik, eta denbora baterako erretiratu ere bai, guztiz errekueratu ahal izateko. Horren ondoren, 1894an, Bartzelonan itzuli zen pelotalekura, txalo ugarirekin jaso zutelarik. Handik Valladolidera egingo zuen salto, bertan jarraitzaile ugari lortuz.

Bere estiloa eta jokuari dagokionez, atzelari bezala jokatu ohi zuen hasiera batean, errebesik erabili gabe gainera, kalitate oneko pelotariak egin ohi duten moduan. Jokatzeko modu hau aldatu egin behar izango zuen besoan min hartutako garaian, beso eskubian indarra galduko baitzuen, aurrelari bezala jokatzen hasiz. Posizio honetan ere garbia eta ona zela esaten digute iturriek (Guernikako, *El Pelotari*, 61<sup>o</sup>Zenb, 2.orr).

---

Nicolas Careaga, nacido en Ermua hacia 1870, mostraría desde pequeño afición por la pelota, como la mayoría de los niños de su edad, pero el destacaría desde muy pronto por su habilidad en el juego.

Comenzaría su carrera profesional en en el frontón de Deusto, en el que llamaría la atención por su potente bolea. Esto le abriría las puertas de otros dos frontones de Bilbao, y jugó en ellos hasta que tuvo que volver a Ermua por una lesión en el brazo derecho. Este incidente le provocaría muchos problemas a la larga, teniendo que cambiar su juego para poder seguir jugando, e incluso tuvo que retirarse durante un tiempo para poder recuperarse totalmente. Volvería a la cancha en 1894, en Barcelona, donde tuvo una muy buena acogida. De ahí saltaría a Valladolid, consiguiendo muchos seguidores aquí.

En cuanto a su estilo de juego, sería zaguero en un principio, famoso por jugar sin utilizar el revés. Después de la lesión tendría que cambiar este estilo de juego, ya que perdería fuerza en el brazo derecho, teniendo que pasar a jugar como delantero. Las fuentes nos dicen que en esta posición también tendría un juego limpio y de calidad (Guernikako, *El Pelotari*, Núm, 61, Pag.2).